Larrialdi sozialeko laguntzak.

Prestazio mota: Bermatua.

Baliabide mota: Behin bakarrik jaso beharreko diru-laguntza.

Baliabidearen xedea: Diru-laguntza, arrisku pertsonal larriko egoerei berehala aurre egiteko.

Onuradunak: Genero indarkeriaren biktimak.

Jasotzeko baldintzak: Arrisku pertsonal larriko egoeran izan eta baliabide ekonomikorik ez unean uneko oinarrizko beharrizanei aurre egiteko.

Zerbitzuaren intentsitatea: Honako oinarrizko beharrizan hauek ordaintzeko behar den gastu osoa. elikadura, higienea, osasuna, jantziak, ostatua eta garraioa.

Emateko epea: Berehala.

Larrialdiko egoera gertatu ondoren, eta betiere emakumeei laguntzeko zentroetako, abegi-etxeetako edo genero indarkeriaren biktimentzako tutoretzapeko etxebizitzetako profesionalek beharrezkotzat jotzen badute, laguntza horiek zentro horietan zuzenean eman eta ordaindu ahal izanen da laguntza.

Jarduteko eremua:
Nafarroako Foru Komunitatea.